



Bestelakoak

Udaltzaingoak aurkitutakoak

Irailaren 4an, Udaltzaingoak honako hauek aurkitu ditu: erloju bat, graduatutako betaurrekoak eta kotxe baten giltzak.

KZgunea irailean

Irailean, KZguneak 9:00etatik 13:00etara bitartean zabalduko dituzte ateak, asteleheneetik ostiralera.

Ikastaroak eta mintegiak:

-Oinarrizko internet ikastaroa: 9tik 20ra, 9:00etatik 11:00etara.
-Gizarte sareak: 17tik 25era, 11:00eta-

tik 13:00etara.

-Irudi digitalen tratamendua I: 9an eta 10ean, 11:00etatik 13:00etara.

-Irudi digitalen tratamendua II: 11n eta 12an, 11:00etatik 13:00etara.

-Kizoa: 13an, 11:00etatik 13:00etara.

-Oinarrizko Open Office Writer: 23an, 9:00etatik 11:00etara.

-Open Office Writer aurreratua: 24an, 9:00etatik 11:00etara.

-Oinarrizko Open Office Calc: 25ean, 9:00etatik 11:00etara.

-Open Office Calc aurreratua: 26an, 9:00etatik 11:00etara.

-Wikipedia: 26an, 11:00etatik 13:00etara.

-Open Office Impress: 27an, 09:00etatik 11:00etara.

-Merkataritza Elektronikoa Euskadin: 30ean, 11:00etatik 13:00etara.

IT txartelaren probak: 16an, 11:00etatik 13:00etara.

Erraketa bat aurkitu dute

Frontoi txikian erraketa bat aurkitu dute. Jabea Udaltzaingoaren bulegora (udaletzeko 1. solairua) joan daiteke jasotzera.

LANDER ONDOVILLA OTEGUI -ABOKATUA-

Foru plaza, 4-3ºF
48800 BALMASEDA
(Bizkaia)

Telefona 626 09 28 92
Faxa 94 680 16 37

Agenda

Euskaltegietan matrikulatzea: irailean, Udal Euskaltegian eta AEKn

Berdintasun arloko ikastaroetan matrikulatzea: irailaren

27ra arte, Emakumearen Etxean
Piraguak alokatzea: iraileko larunbat eta igandeetan, Pío Bermejillo 40

Irteera Toralera: irailaren 8an "Otoño Green"-en matrikulatzea: irailaren 9tik 20ra, liburutegian

Hitzaldia: "Cabaña Real de Carreteros": irailaren 16an, 19:00etan, Kultur Etxean

Igerileku klimatizatua irekitzea: irailaren 17an

Kolitzza-Gazte gazte abesbatzaren saioak hasiko dira: irailaren 17an, 19:00etan, Kultur Etxean

Masaje linfatikoa: irailaren 18an, goizez. Emakumearen Etxean

"Las palabras inútiles" liburuen aurkezpena: irailaren 20an, 20:00etan, Kultur Etxean

Enkardendak II: irailaren 21ean, 10:00etatik 20:00etara, San Severino plazan

Irteera Donemiliagara eta Peñalarara: irailaren 21ean eta 22an

"Italiako II. Zirkua": irailaren 27tik 29ra, arratsaldeko saioetan, udal frontoian

Txiki park irekitzea: urriaren 1ean

Balmasedako desfilea: urriaren 4an, San Juan Plazan

Zinearen denboraldi berria: urriaren 5ean, Klaret Antzokian

IV. Martxa Kolitzara, BTT Tutto: urriaren 6an, 9:00etan

2013ko Balmasedar petoa hautatzeko proposamenak: urriaren 11ra arte, bulego nagusietan eta Kultur Etxean

Laburki



Galiziako bandera
Udaletxearen balkoian

Udalak elkartasuna erakusten die uztaileko tren-istripuak eragindako pertsonen

Iragan uztailearen 26an, Balmasedako udaletxeko fatxadaren banderak galiziarra jarri zuten, uztailearen 24an Santiagotik gertu gertatutako tren-istripu tragikoak eragindako pertsonen dolumina eta elkartasuna adierazteko xedez. Udal honek bat egiten du herri galiziarren bihozminarekin eta, bereziki, biktimen familia eta gertuko pertsona guztien atsekabearekin. Era berean, horiei guztiei dolumin zintzoena helarazi nahi die.

Saria kontakizun hunkigarrienarentzat

Aldizkari honen aurreko zenbakian, Balmaseda BHIK 2012-2013 ikasturtean antolatutako lehiaketan irabazleen izenak eman genituen. Ikastetxeko liburutegiak kontakizunen sari hirueleduna antolatu zuen "Y si volvieras a la infancia, ¿qué cuento te escribirías?" (Haurtzarora itzuliko bazina, zein ipuin idatziko zenuke?) abiapuntuarekin, eta irabazleen izenen zerrendari Aitana Henales gehitu behar diogu. 3. mailako ikasle horrek kontakizun hunkigarrienaren saria jaso zuen. Zorionak, Aitana!

UdalBerriak

LANA

LANBIDE ESKUALDEKO ENPLEGU ZENTROAREN ZERBITZUAK



Lanbide Eskualdeko Enplegu Zentroaren barrualdea

Joan den ekainaz geroztik, Lanbide Eskualdeko Enplegu Zentroak Lantegi Eskolako eraikinean ematen ditu zerbitzuak, Martin Mendia kaleko 15. zenbakian (hiltegi zaharra). Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, orientatzaile batek arreta emango die behar duten pertsona guztiei, eta zentroan eskuragarri dauden baliabideak ere erabili ahal dira. Hauek dira eskaintzen diren zerbitzuak:

-Enpleguari buruzko liburutegia: enplegu-gaiei buruzko bibliografia,

test psikoteknikoen ereduak, talde-dinamikak, enpresen zerrendak, etab.

-Iragarki-taula: enpleguari buruzko askotariko informazio eguneratua, hala nola, diru-laguntzak, ikastaroak, dekretuak, etab.

-Internerako konexioa: enplegu-erakundeak bilatzeko, enpleguari buruzko orrietan sartzeko, etab.

-Orientazio pertsonala: curriculum edo aurkezpen-gutunak egiteko orientazioa, elkarrizketak prestatzea, lanari buruzko gaietarako taldeak sortzea, milanbideneten sartzeko ikas-

teko laguntza (bertan Lanbideak langile bakoitzari buruz dituen datu pertsonalak daude), informazio orokorra, lan-atarietan alta emateko laguntza, etab.

Zerbitzu hori 2014ko ekainaren 30era arte egongo da eskuragarri, eta etorkizunean handitu egingo da lan-orientaziorako bulego batekin. Informazio gehiago lortzeko, 688809853 telefono-zenbakian jar zaitezke zentroarekin harremanetan.

Udalak curriculumak jasoko ditu Pastgurenerako

Glefaranek, Pastgurengo jabe berriak, Udalaren laguntza eskatu du gure udalerriko langabetuen curriculum vitaeak jasotzeko, zehazki, aipatu konpainiak Pastgurengo lehengo instalazioetan enpresa-proiektua abian jartzeko egingo duen hautaketa prozesurako.

Hartara, proiektu berri horretako plantilla berria osatzeko interesa dutenek euren curriculumak utzi ahal izango dute udaletxeko Erregistro Nagusian (1. solairua), **irailaren 9tik**

30era bitartean, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Nabarmendu behar da hautaketa prozesuaren kudeaketa berriaz enpresa sustatzaileari dagokiola, eta ondorioz, Udalak eginkizun gardena egingo du Erregistroaren bidez dokumentazioa jasotzeko orduan, hain zuzen, ziurtatzeko Balmasedako langabetu guztiek aukera dutela euren curriculumak enpresariari helarazteko baldintza berberetan.

Berriaz baimendu beharko da CVa aurkeztearekin batera Global Efficiency Aranguren S.L. enpresari datu pertsonalak ematea, datu horiek euren fitxategietan sartzeko. Horiek ondoren enpresa horri dagozkion jardueretarako erabiliko dira. Datu horiek eskuratzeko, aurka egiteko, zuzentzeko eta deuseztatzeko eskubiak baliatu ahal izango ditu. Horretarako, aipatu enpresari idazkia igorri beharko zaio. (15/1999 Lege Organikoa eta 1720/2007 ED).

HERRITARRAK

Parte hartu gazteentzako Koltza-Gazte abesbatzan

Koltza abesbatzak gazteentzako Koltza-Gazte abesbatzaren partaide izan nahi duten haur guztiak animatzen ditu saioetara joatera. Saiok **irailaren 17an (asteartea)** hasiko dira, 19:00etatik 20:00etara, eta gogoia duten haur guztiak etor daitezke. Informazio gehiago nahi baduzu, bidali mezua corakoltzabalmaseda@gmail.com helbidera. Ez egin zalantza eta hartu parte!



Lana

- 30 urteko gorako **neska baten bila**, pertsona nagusi bat zaintzeko. Eskarmentua izan behar du. **664786141**.
- Pertsona arduratsua **nagusiak zaintzeko prest**. Eskarmentuduna egoitzetako lanetan, eta lan soziosanitarioen inguruko tituluduna. **650312244**.
- 25 urte baino gehiago dituen **neska bat behar da**, altu samarra eta indartsua. Oporrak direla eta, irail osorako behar da, gurgildun aulkian doan emakume bat zaindu eta laguntzeko. Interesdunek astelehenera ostiralera dei dezakete **946102490** telefono-zenbakira, 11 etatik 13etara bitartean.
- Erizain-laguntzailea** prest pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean egonda, kanpotik joanda edo asteburuetarako. **649382794**.
- Neska bat lan bila dabil**: adinekoak edo haurrak zaindu, garbiketa lanak, sukaldari laguntzaile lanak, eta abar. **688633382**.
- Eskarmentudun neska** umeak zein adinekoak zaintzeko, sukaldari laguntzaile lanak eta garbiketa lanak egiteko prest. **606019279**
- HABEko Euskaltegia** lan egin duen irakasleak maila guztietako klaseak emango lituzke: EGA, mintzapraktika, kurtsu bereziak, etab. Edozein leku eta ordutan. **656710411**.
- Mota guztietako **garraiatzeak** egiten dira furgoneta-rekin (altzariak, etxetresna elektrikoak eta behar duzun guztia). Seriotasuna eta prezio doituak. **679276515**.
- Gazte batek **txatarra jasotzen** du etxeetan, eta lonjak zein ganbarak garbitzen ditu. Seriotasuna. **618379335**.
- Tituludun irakasleak klase partikularrik ematen ditu, **8 eta 15 urte bitarteko haurrei**. Lokal propioarekin. Arkaitz - **665738777**

Alokairua

- Pisua alokairuan Balmasedan**. Ezin hobea pertsona batentzat edo bi pertsonarentzat. Abstenitu egotz ez nazionalak. **687215161** (hobeto arratsalde).
- Apartamentua alokairuan** San Miguel de Linaresko (Artzetales) landetxean. 2 logela, bainugela, sukalde-jangela-egongela, garajea eta trastelekua. Maskotak onartuak. Orturako aukera. 490 €/hil. **669886000**.
- Logela errentan** Balmasedako hirigunean. **656710411**.
- 3 auto, motorra, bizikleta, etab. sartzeko **garajea salgai**. 42 m², argia. Ez da ibirik behar. Gaztelu kaleko igoera. **639511791**.
- Garaje partzela** salgai edo alokairuan Kalbario kalean, beilatokiaren ondoan. **615740171**.
- Partekatze pisua** bilatzen da. **656710411**.
- Garajea alokatzen da Magdalena kalean, Gizarte-segurantzatik hurbil. 50 euro. **645700597**.
- Logela** alokatzen da neska bati, pisua partekatze. **659844980**.

Hitzaldia: Balmaseda gurdizainen ibilbidea

Irailaren 16an, "Los Puertos de Castilla / Gaztelako mendateak" errepideko XIV. ibilbidea Balmasedatik igaroko da Quintana de la Sierratik Laredoraino "Cabaña Real de Carreteros"-ek antolatutako karabanaren. Gure hiribilduraino iritsiko dela aprobetxatuz, hitzaldi bat antolatuko dute 19etan Kultur Etxean. Gurdizainen historiari buruz eta "errepide zahar horiei" buruz hitz egingo dute. Horrela, gure hiribilduak ibilbide horietan izan zuen pisua aipatuko dute. Informazio gehiago: cabanarealcarreteros.org.

Salmenta

- Alepoko xaboi** siriarra salgai, partikular eta saltokientzat. Deskontu interesgarriak. Bereziki onuragarria aknea eta azaleko beste arazo batzuetarako. **617689452**.
- Lur-zatia duen etxea salgai** Espinosa de los Monterosen. 2 solairu. 3 logela, 2 komun, egongela-sukaldea eta txokoa. **650312244**.
- Pisua berria**, dotorea, San Severino plazaren ondoan (Ateneo eraikina, Ercoresako ataria). 4. solairuan, 130 m²-ko azalera. Trastelekua ere badu (10 m²), eta garaje zabal-zabala (hautazkoa), etxebizitzara zuzenean doazenak. 32 m²-ko saloia, 16 m²-ko sukaldea, 3 logela, 2 komun. Horma-armairuak. Alokairuan ere har daiteke, erosteko aukerarekin. Ikusi egin behar da nahitaez. 268.000 €. **654140222**.
- Garajea** salgai: 3 kotxetarako, motorra, txirriduta, etab. 42 m², argia, ez du pasabiderik behar. Gaztelu kalearen aldapan. **639511791**.
- Luxura V5 solarium** bertikala salgai. 2007koa da, egoera bikainean dago, azterketak gaitututa eta prezio onean. **671513474**.
- Etxebizitza atxikia** salgai Villanueva de menan. 4 logela, sukaldea, 2 egongela, 2 bainugela, 2 ibilgailurako garajea, txokoa eta lorategia. Gasolio berogailua. 200.000 euro. **679597404**.

HERRITARRAK

Jarduerak Erretiratuen Elkartean

Balmasedako Erretiratuen Elkartek aditzera ematen du irailaren 11tik 13ra bitartean Segovia, Ávila, Arévalo, La Granja eta abarretara joateko bidaia egingo duen autobusa bete egin dela. Hala ere, beste bi txango antolatzen ari dira. Horietako bat **urriaren 8an** egingo dute, eta Mutriku eta Ondarroara joango dira. Sustapen-bidaia izango da, eta kostua 10 eurokoa da. Beste txangoa **urriaren 27tik azaroaren 4ra bitartean** egingo dute, eta orduan Kanaria Handira joango dira, Maspalomasera. Interesa duten pertsonak azken bidaia horri dagokion diru kopurua sar dezakete Elkartek Laboral Kutxan duen kontuan. **Irailaren 28an** bazkaria egingo da udal frontoian, Elkartean 6. urteurrena eta aititen zein amamen

eguna ospatzeko. Halaber, omenaldia egingo zaie Elkartean bazkide diren senar-emazteei, aurtun urrezko ezteiak baldin badituzte (1963an ezkontutakoak). Aurtun egokitzen zaien senar-emazterik badago eta familia liburuaren fotokopia oraindik aurkeztu ez badu, irailaren 10a baino lehen eraman dezake. Bazkaria 3 euro kostatuko da, 14:30etik aurrera ekingo diote, eta eserlekuetarako zenbakiak **irailaren 23tik** aurrera banatuko dira. Labana eta sardexka eraman behar dira, baita 2013. urteko karne-ta. Laster iragarriko da zein egunetan egingo den bilera urrian hasiko diren dantza, yoga eta oroimena berreskuratzeko ikastaroei buruz.

Mendi Taldearen irteerak

Hona hemen Balmasedako Mendi Taldeak iraileko antolatutako irteerak:
-Torál (897 m), Torrelavegan (Kantabria). **Irailaren 8an** izango da.
-San Millán (2.132 m) eta **Peñalara (1.296 m)**, Quintanar de la Sierran (Burgos). **Irailaren 21ean eta 22an** egingo dute.

Informazio gehiago eskuratzeko, deitu 946800646 telefono-zenbakira, joan Mendiko Etxera astelehenera, asteazken edo ostegunean (20:00etatik 21:00etara) edo bidali mezu elektronikoa info@balmasedamenditalka.net helbidera.

Zure negozioa oraindik ez al dago Interneten?

 ZURE BILA BAI, BAINA ZU AURKITU EZ.

300 €

BEZa barne

ZURE WEB EXPRESS DISEINATUKO DUGU

- Betegarria sakelako telefonoekin eta tabletekin.
- Zailtasunik gabe. Zuk zeuk eguneratu.

MEDIA
M_S SECTOR

IRUDIA
PUBLIZITATEA
WEB DISEINUA
SARE SOZIALAK

Egin kontsulta
683 345 906

Edo Interneten
mediasector.es

"Las palabras inútiles" liburuaren aurkezpena

Iñaki Arza balmasedarrak Las palabras inútiles poema liburua aurkeztuko du **irailaren 20an**, 20:00etan. Obra horretan, bere bizitzak, arrakastarik gabeko ametsek, desilusioek eta abarrek eragiten dioten bihozminaren inguruko hirurogei poema bildu ditu artistak. Bestalde, poemek eszena poetiko bilbotarrean ospea duten egileen, musikarien eta goraka ari diren artisten kolaborazioak izango dituzte bidelagun.

Aurkezpena Kultur Etxean egingo da, eta musika nahiz beste sorpresa batzuek baliatuko dira ekitaldi dinamiko eta ohiko literatur aurkezpenekin zerikusirik izango ez duen emanaldia sortzeko.

Balmasedar petoa

Balmasedar petoa izatea gure hiri-bilduaren eta bertako biztanleen alde lan egin duen edo lan egiten pertsona izatea da. Zure ustez, nork merezi du ohore hori? Bete ezazu bertan agertzen den kupoia eta aurkeztu gutun-azal itxian udaletxean edo Kultur Etxean, Kultura Arloko zinegotzigoaren ize-nean, **urriaren 11** baino lehen. Hautagaiak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak hartuko du azken erabakia. Putxeren Nazioarteko Lehiaketaren sari banaketan emango da erabakiaren berri.

BALMASEDAR PETOA 2013

Proposamena nork egiten duen: izen abizenak

NAN

Nire proposamena:
Pertsona edo taldea

UdalBerriak

KULTURA

ZINEA ITZULI DA



Klaret Antzokia

Urriaren 5ean, larunbata, Klaret Antzokia Balmasedako zinea izango da berriz ere, eta denboraldiko lehen filmak emango dira bertan, formatu digitalean. Azken aldian estreinatutakoak ikusgai izango ditugu ostiraletik astelehenera bitartean; larunbat eta igandeetan bi saio egingo dira, eta ostiral zein astelehenera, bakarra. Haurrentzat unean-unean eskura dauden filmen arabera, saiatuko dira astero bat ekartzen, orain arte egin duten moduan.

Sarrera normalak 4,50 euro balioko du, umeentzako saioetarako sarrerak (bakarra ikusle guztientzat) 4 euro, astelehenerako sarrera 3,50 euro kostatuko da (ikusleen eguna da), estreinaldietarakoak 5 euroko prezioa izango du, eta 3D filmak ikusteko sarrerak 6 euro balioko du.

Helduentzako zine-saioetako sarrerak zenbakia dute, eta beraz, eserlekua hautatzeko aukera izango duzu. Komisioak aurreztu eta ilarkek ekidinduz sarrerak leihatilari aurrez eskuratzen badituzu, honako ordutegi hauetan: ostiraletan, 20:00etatik 21:00etara; larunbatetan, 19:30etik 20:30era; igandeetan, 19:30etik 20:30era; eta astelehenera, 19:30etik 20:30era. Orobat, Balmasedaren web orriaren bidez ere saltzen dira, eta Kutxabankek sarrerak saltzeko duen zerbitzua ere erabil dezakezu. Datozen saioetako filmen berri izan nahi baduzu, jarrai iezaguzu Udalaren Facebook orrian edo Balmasedaren web orrian: www.balmaseda.net.

Il Circo Italiano Balmasedan

Etorri eta ikusi, jaun-andreok, nagusi eta txikiak: **irailaren 27tik 29ra**, Il Circo Italiano gozatu ahal izango duzue udal frontoian. Karparen azpian, mundu berria zain dugu: Marco Rossi eta Pau Sarraute pailazorik komiko eta karismatikoak, Ivanak aireko zirkuituan erakusten duen egonkortasuna, adorea eta poesia, Marlene Alvesen antipodismo eta plastikotasuna, Viviana Rossen aireko zintak, Alejandro eta Richarden ikarioak, Omarrek eta Claudiak oihalen gainean airean erakutsitako dotoretasuna eta edertasuna, Masimo Rossi malabaristaren trebetasuna, David Núñezek trapezioaren gainean, airean, erakutsitako gainditzeko grina paregabea, Ivana Rossiren kontortсионismoa eta irudien fusio ezin hobea "Flying Frame" trapezio duoen eskutik. Familia giroko ikuskizuna da, bi ordukoa, eta gure hiribilduan arituko dira lehenengoz irailaren 27an. Bi emanaldi eskai-



niko dituzte hilaren 28an (larunbata) eta beste bi hilaren 29an (igandea). Gainera, lehenengo egunean prezio berezia egongo da: 7 euro, eta palkoan 15 euro. Ezin duzu galdu "Circo Di Venezia", "Spirit of Circus", "Sueños" edo "Pinocho" obren ekoizle den Rossi familiaren azken ikuskizuna.

"Otoño Green" askotariko jardueren programa liburutegian

Udal liburutegiak denboraldi berriari ekin dio indarberrituta. Horren froga da udazken hasierarako prestatzen ari diren "Otoño Green" jardueren programa. Honako hauek dira jarduerok:

-Gazteentzako komiki tailerra: bi ordukoa izango da, astelehenera, tailerrak guztira dituen 28 orduak bete arte.

-Liburutegi emozionala: 8 urtera arteko haurrentzat. Astearte eta ostegunetan egingo dira, eta ordubeteko

iraupena izango dute, guztira 14 ordu.

-Literatura kluba: jarduera hau helduei zuzenduta dago, eta hamabostean behin antolatuko dute, asteazkenetan. Guztira 14 ordu izango dira, egun bakoitzean bi ordu.

-Belaunaldi arteko yoga: bi ordu hamabostean behin, ostiraletan, guztira 12 ordu.

-Ibaiaren horma-irudirako boluntarioak: ibaiaren horma-irudia egin nahi dutenek, boluntarioen tailer ho-

netan parte hartzeko aukera izango dute hilean larunbat batean.

Jarduera horietako edozeinetan izena emateko epea **irailaren 9tik 20ra bitartekoa** izango da, biak barne, eta liburutegian bertan egin ahal izango da.

Gogorarazi nahi dugu 10 urtetik beherako adingabeak ezin direla liburutegira joan begirale batek edo horietaz arduratuko diren heldu arduradunek lagunduta ez bada.

KIROLA

Jarduera berriak Kiroldegian

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA
9:15		PILATES		PILATES		
9:45	CROSSFIT		ABDOMINALAK		CROSSFIT	
10:15	SPINNING	GYMPUMP	SPINNING	GYMPUMP	SPINNING	
11:00	ABDOMINALAK					SPINNING
18:00		PILATES		PILATES		
18:15		CROSSFIT		CROSSFIT		
19:00	SPINNING GAP	ABDOMINALAK	SPINNING GAP	ABDOMINALAK	SPINNING AEROBIC	
19:30		GYMPUMP		GYMPUMP		
20:00	CROSSFIT AEROBIC		CROSSFIT AEROBIC			
20:15		SPINNING		SPINNING		
20:30		KICKBOXING		KICKBOXING		

Irailan kiroldegian egingo diren ekintzen egutegia

Irailan, Errotarena kiroldegiak jardueraz beteriko egutegiari ekin- go dio. Urrian, ordutegiak zabaldu eta jarduera gehiago sartuko dituzte gustu eta beharrian guztietarako. Aipatzekoa da gimnasioko bazkideek ikasturte honetan uretako zenbait ekintzaz ere gozatu ahal izango dutela.

Informa zaitez kiroldegian honako hauen inguruan: instalazioak, eskaintzen dituzten zerbitzuak, zure beharrianetara ondoen egokitzen diren kirolak, tarifak eta kirolak dakartzan onurez gozatzeko jakin behar duzun guztia.

Ikasturte berria udal igerilekuetan

Irailaren 15ean, kanpoko igerilekuak itxi eta amaitutzat emango dute udako denboraldia. Hala, igerileku klimatizatu irekiko dute irailaren 17an (asteartea).

Haurrentzako ikastaroak

Aurten, 350 leku egongo dira guztira haurrentzako igeriketa ikastaroetan, eta ordutegiak astelehenetik ostiralera bitartean izango dira, 15:15etik 19:15era bitartean. Gomendagarria da aurkezpenaren egunean bertaratzea, lekurik gabe ez geratzeko. Ikastaroak jarraian zehazten den be-

zala hasiko dira:

-Egokitzapena: igeri egiten ez dakiten eta 2008. urtean edo lehenago jaiotako haurrentzat (25 m crawl - 25 m bizkar-igeriketa). Aurkezpena eta izen-ematea: **irailaren 10ean**, 17:30ean Kultur Etxean. Ikastaroaren hasiera: irailaren 23an.

-Trebakuntza I eta II: 2009. eta 2010. urte artean jaiotako haurrentzat. Aurkezpena eta izen-ematea: **irailaren 17an**, 17:30ean, Kultur Etxean. Hhasiera: urriaren 4an.

-Hobekuntza: ikastaroetan aritu diren eta 2007. eta 1998. urteen artean jaio direnentzat. Izen-ematea: **irailaren 23tik aurrera**, 9:30etik

12:30era, kiroldegian. Ikastaroaren hasiera: urriaren 14an.

Helduentzako ikastaroak

Helduentzako ikastaroei dagokienez, azpimarratu behar da zenbait aldaketa egongo direla. Aurreratzeko, esan dezakegu gimnasioko bazkideek eskaintza zabalagoa izango dutela jardueretan; izan ere, uretako ekintzen hiru proposamen egongo dira beste ordutegi batzuetan. Aldaketa horien inguruko zehaztasun gehiago eman go ditugu hurrengo Udalberriak alizkarian.

ENKARTERRI

Pozalagua leizea finalista Repsol
Gidaren 2013ko txokorik onena izateko

Karabanaren harrera Balmasedan

beste irabazlearen kontra: Extremaduran dagoen Hervás herriko judutegia. Hala, Karrantzako herritarrek ahalegin handia egingo dute Pozalaguako hautagaitza hori sustatzeko.

Joan den abuztuaren 31n abiarazi zuten ekimen horietako bat, karabana baten bidez Enkarterriko herriak Bilborekin lotu baitzituzten. Balmasedan, Álvaro Parro eta losune Sain Alexandre zinegotziek egin zuten harrera, eta horiek, leize horren alde bozkatzera animatzea xede duen bandera jaso zuten. Bandera, hain zuzen ere, udaletxearen aurrealdean jarri dute oroi-garri gisa. Egunean bi aldiz eman dezakezu botoa lehiaketaren web orrian irailaren 13ra arte, 10:00ak arte.

Karrantzako Pozalagua leizeak finalerdien fasea gainditu du Repsol Gida ospetsuak antolatutako 2013ko txokorik lehiaketan. Interneten bidez 100.000 boto baino gehiago lortu ondoren, irailan lehiatuko da finalerdiko taldearen

Laburki

IV. Martxa Kolitzara BTT Tutto

Urriaren 6an, BTT Tutto Kolitzara Martxaren IV edizioa iritsiko da. Aurtengo nobedadeen barruan, Kolitzatik, Garbeatik eta Arbalitzatik igaroko den ibilbide berria egongo da, baita 22 km-ko edo 42 km-ko ibilbideen artean hautatzeko aukera ere. Izen-emateak 8etatik 9etara bitartean egingo dira, frontoian. Parte hartu nahi duen orok aukera izango du (alde zurretik erreserba eginda) eskainiko den indaba putxeraz gozatzeko, eta horrekin batera datozen lagunek ere 6 euroren trukean dastatu ahal izango dute. Era berean, antolatzaileek putxera bat zozketatutako dute funtsak biltzeko.

Azokak Enkarterrin

Irailaren 15ean, Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokaren XXXI. edizioa egingo da **Muskizen**. Bizkaiko Txakolinaren urrezko dominaz gain, baserriko produktuen erakusketa eta salmenta, tokiko abereen eta nekazaritzako makineriaren erakusketa, zaldi-aziendaren eskualdeko lehiaketa eta zaldi ikuskizuna izango ditugu.

Sopuertako Beci auzoak gonbidatu egin gaitu **irailaren 27an** bertan egingo den Abeltzaintza eta Nekazaritza Azokara. Ardi eta ahuntzaziendaren erakusketa eta lehiaketa egingo dira, baita nekazaritza, abeltzaintza eta artisautzaren arloko beste produktu batzuk erakutsi eta saldu egingo dira.

Artzentalesen ere Nekazaritza, Abeltzaintza eta Artisautza Azoka egingo da, eta horrelako produktuen erakusketa eta salmenta izango dira. **Irailaren 28an**.

Karrantza Haranak urriaren 5ean egingo du Abeltzaintza, Nekazaritza eta Artisautza Azoka. Latxa arrazako eta Karrantzako ardien lehiaketa egingo dute eta artisautzako zein baserriko produktak erakutsiko dira.

Azkenik, **Zallan** LVII. Ganga Eguna egingo da **urriaren 7an**. Produktuen lehiaketaz gain, nekazaritza ekologikoaren erakusketa eta bertako ganaduaren LVI. erakusketa.

Laburki

Obrak Geltoki kalean

Abuztu amaieran Geltoki kalean, trenaren alboan, dagoen espaloia berritzeko obrak amaitu ziren. Oinezkoentzako pasabidea handitzeaz gain, baldosak berri dira.



Tribuna nagusia

Obrak La Baluga zelaian

Irailean amaituko dute La Baluga zelaia birmoldatzeko lehenengo fasea.

Tribuna nagusi berria instalatu da, harmaila eta eserlekuak dituen, eta zelaiaren inguruaren itxura berria ere egin dute.

Etxe Urdina eraistea

Dorre kalea 8 helbidean dagoen eraikina (herrian Etxe Urdina izenez da ezaguna) irailan bertan eraitsiko dute. Higiezinaren egoera txarra denez, ondoan dagoen behin-behineko aparkalekuaren zati bat itxi behar izan da, eta eraitsi ostean irekiko da berriz ere.

Prozesionariaren aurkako fumigazioa

Infestazio maila handia denez, Bizkaiko Foru Aldundiak irailan fumigatuko ditu pinuak dituzten udalerriko eremuak, prozesionariaren izurriteari aurre egiteko. Horretarako, helikoptero bat, Dimilin oleoso B eta Belthirul F bakterioa erabiliko dira.

Eskaera Bizkaibusi

Udalak Bizkaibusi idazkia igorri dio Leioako Unibertsitateko Cam-puserako autobus zerbitzu zuzena eskatzeko.

HIRIGINTZA

KOEXISTENTZIA DUTEN KALEAK BERRIZ ERE ZABALIK



Aldapa kalea

Iragan irailaren 2an, zabaldu ziren berriro oinezkoak eta ibilgailuak aldi berean ibiltzeko kaleak (Pio Bermejillo eta Aldapa kaleak) udako etenaren ostean. Gogorazten dugu koexistentziaren ordutegia astelehenetik ostegunera

bitartekoa dela, zehazki, 06:00etatik 20:00etara arte. Ostiraletan, aitzitik, 06:00etan hasi eta 16:00etan bukatuko da. Pio Bermejillo kalera sartzeko, Foru plazatik igaro beharra dago. Aldapa kalearen kasuan, ordea, udaletxearen ondoan dagoen sarrera erabili behar da. Era berean, zutoinak **zamalanelarako baino ez dira irekita utziko**, zehatz-mehatz, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 12:00etara bitartean. Garajeetarako sarrera izan ezik, Hedegile kalera joateko San Severino plazatik igaro behar da, eta Foru plazatik atera. Pio Bermejillo kaleari dagokionez, sarrera Foru plazatik egingo da, eta irteera San Severinotik.

Koexistentziarako txartelak eskuratzeko eskaerak udaletxeko idazkaritzan egin behar dira (1. solairua). Kaleak oinezkoentzat bihurtzeari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, deitu herritarrentzako arretarako telefono-zenbaki honetara: 946801002 (hitz egin Nagoreekin).

GAZTERIA

Enkarterriz Summer 2013

2013ko uda amaitzen ari da, eta orain atzera begiratzeko unea da, bizi izandako esperientzia guztiak biltzeko. Ekainaren 22an eman zitzaion hasiera Enkarterriz Summer 2013ri, zehazki, Cadagua espedizioarekin. Bertan, Balmaz-eko 5 gaztek hartu zuten parte, 12 eta 17 urte artekoak. Jarduera horrek, ingurumen arloko osagaiaz gain (Cadagua ibaiertza garbitzea), osagai solidarioa ere badu; izan ere, bildutako zabor kilo bakoitzeko 1 euro eskuratuko da, eta hori hurrengo proiektu solidariarako erabiliko da. Uztaila erdialdean (15etik 23ra bitartean), jarduera garrantzitsu eta arrakastatsuenetarikoa bat egin zen: gazte elkartruke, Balmaz gazteria zerbitzuak antolatutakoa. Oraingo honetan, gazteak (15 urtetik 18ra bitartekoak) Korsika irlara joan ziren bidaian, eta, bertan, zuzenean ezagutu ahal izan zituzten Korsikako eta Euskadiko kulturen antzekotasun kultural eta sozialak. Gainera, Italiako iparraldeko hiri enblematikoenetan (Florentzia, Venezia, Pisa) zehar ibiltzeko zortea izan zuten. Etxera itzultzean, Avignonen aire zabaleko antzerki jaialdiko zenbait emanaldiz gozatze-



Toscana Express abenturan parte hartu duten hiru gazte

ko denbora izan zuten. Era berean, nagusienak (18 urtetik 29ra bitartekoak) Toscana Express abenturan murgildu ziren. Uztailaren 15etik 23ra, Italiako Toskanako parajeetan barrena ibili ziren. Antolatzaileek jarritako zenbait proba gairatu behar izan zituzten, eta "La Vida es Bella" filmaren hainbat eszena ere antzeztu behar izan zituzten, film hori inguru horietan grabatu baitzen. Abentura horren funtsa E. Ondovillak esandako hitz hauen bidez laburbil daiteke: "Toscana Express zenbait la-

gun eta ezezagunen arteko abentura gisa hasi zen, eta azkenean, bertan osatu genuen familia handiaren esperientzia onenetako bat bilakatu zen". Lerro hauek idazten diren bitartean, Enkarterriz Summer oraindik ez da amaitu; izan ere, Balmazen bi koope-rante gazte (Iker eta Sonia) oraindik ez dira itzuli Hondurasetik. Hilabete eta erdi eman dute bertan, Horizontes al Futuro zentroan boluntario lanak egiten. Balmasedako herritarra den Goyo Alonso anaiak zuzentzen du zentro hori.

Euren zain gaude, ezinegon handiz, bidaia horren eta bertan bizi eta ikasitako guztiaren berri eman diezaguten.

Guztira Balmasedako 23 gaztek hartu dute parte 2013ko udarako antolatutako jardueretan.

Jarduera bakoitza sakonago ezagutu nahi baduzu edota argazkiak zein bideoak ikusi, sar zaitetz helbide hauetan:

<http://enkarterribidaiatzen.com/>
<http://expedicionkadagua.org/>
<http://gugazsolidario.org/>

BERDINTASUNA

Txiki Park-ek ateak zabalduko ditu berriro



Txiki Park-ek ohiko zerbitzuak eskaintzeari ekingo dio **urriaren 1etik** aurrera (asteartea), udako oporraldia- ren ondoren. Gogorazten dugu Txiki Park irekita dagoela astelehen, ostegun eta ostiraletan (urtebetetzeak izan ezik), 17:00etatik 20:00etara bitartean, eta astearte zein asteazkenean, 16:00etatik 20:00etara bitartean. Orobat, asteburuetan itxita egongo da. Dena den, urtebetetzeen kasuan irekiko dute, baldin eta aurretik erreserba egiten bada, eta ostiral, larunbat edo igandetan besterik ez dira antolatuko.

Udal zerbitzu horren bazkide kopuruak gora egin duenez, eta haur guztiek instalazioez gozatzeko aukera izan dezaten, bazkide bakoitza 2 ordu egon ahal izango da Txiki Parkean egun bakoitzeko, gehienez ere.

Izena ematea Berdintasunaren inguruko ikastaroetan



Pintxoak egitea kurtso hauek ematen duten aukeretatiko bat da

Emakumearen Etxeak epea zabaldu du urritik aurrera egingo diren ikastaro eta tailerretan izena emateko. Honako jarduera hauetako batean parte hartu nahi baduzu, **irailaren 27ra arte** eman dezakezu izena:

- Informatika (zenbait maila)
- Artearen Historia
- Psikologiari eta garapen pertsonalari buruzko tailerra
- Idazketa tailerra
- Zereginak trukatzeko tailerra, gizonzoei zuzenduta (kuzinatzea, garbitzea, lisatzea eta jostea)
- Pintxoak egitea
- Yoga
- Pilates

Izen ematea zabalik da gizon eta emakumeentzat. Nolanahi ere, zereginak trukatzeko tailerra gizonen baino ez dago zuzenduta. Orobat, nabarmendu beharra dago izen emateko hurrenkerari zorrotz jarraituko zaiola, aurreko urteetan bezala, eta kontuan hartuko dira iragan ekaineko aurrematrikulak. Ikastaro horien guztien plaza kopurua mugatua da.

Informazio gehiago eskuratzeko eta izena emateko, jo ezazu Emakumearen Etxera (Hedegile kalea, 62), edo deitu 946103099 telefono-zenbakira, 09:00etatik 13:00etara bitartean.

EUSKERA

Euskararen Transmisioari buruzko kanpaina



Euskara Zerbitzuak euskara familiaren bidez transmititzeko "Eman Giltza/Háblale, Escúchale" kanpainaren beste edizio bat abiarazi du uda honetan. Horretarako, ume jaioberriak dituzten familiei geure hizkuntza familia-giroan erabiltzeko aholkuak

biltzen dituen liburuxka bat eta "ku-Ku" haurrekin hitz egiten hasteko gida berria bidali zaie, haurrekin jolasteko joku, abesti eta abarrek. Guztira 85 ale banatu dira 0 eta 1 urte bitarteko umeen artean, eta 190 ale 1 eta 3 urte bitarteko artean. Halaber, www.emangiltza.com web orria ere abian dago. Bertan, euskara familiaren bidez transmiti-

zearekin lotutako zalantza eta beldur guztiak argitu eta konpondu ahal izango dira. Alkarbideko koordinatutako eta Foru Aldundiak babestutako proiektua da. Informazio gehiago nahi baduzu, jo ezazu www.emangiltza.com web orria.

Izena ematea Enkarterriko Euskaltegietan

Euskara ikasi edo praktikatu nahi baduzu, azterketak prestatu, edo besterik gabe, gure hizkuntzarekin gozatu, Enkarterriko Udal Euskaltegiak eta AEK-k aukera berria eskaintzen dizute ikasturte honetan. Informa zaitetz eta eman izena **irailan**, eta etorri euskarara.

Enkarterriko Udal Euskaltegia: 946800000 (Miren) eta 946670902 zenbakiak, Lusa auzoa, 3 (Zalla) helbidean dauden bulegoak, eta enkarterriko@euskaltel.net helbide elektronikoa. Balmasedako AEK: 9468000000 (Miren) eta 946670312 telefonoak, Lusa auzoa, 3 (Zalla) helbidean dauden bulegoak, eta zalla@ae.org helbide elektronikoa. Eskolak Lantegi Eskolan emango dira.

Laburki

2014rako lan egutegia Balmasedan

Datorren urtean, 2014an, honako hauek izango dira jaiegun, urteko igande guztiez gain:

- Urtarrilak 1, Urteberri eguna
- Urtarrilak 6, Epifania
- Apirilak 17, Ostegun Santua
- Apirilak 18, Ostiral Santua
- Apirilak 21, Pazko Astelehena
- Maiatzak 1, Langileen Eguna
- Uztailak 31, Loiolako San Inazio
- Abuztuak 15, Ama Birjinaren Jasokundea
- Urriak 23, San Severino
- Urriak 25, Euskadiko Eguna
- Azaroak 1, Domu Santu Eguna
- Abenduak 6, Konstituzioaren Eguna
- Abenduak 8, Sorkunde Garbia
- Abenduak 25, Eguberria

Tokiko jaiegunak, hots, uztailean 31 (jaieguna Bizkaian) eta urriaren 23a, Udalbatza Osoaren bilkuran onetsi ziren.

Bizi Cadagua piraguan

Irailan ere zure eskura izango duzu piraguak alokatzeko zerbitzua, Cadaguan zehar nabigatzeko. Xehetasun guztien berri izateko, jo ezazu alokairurako egokitu den lokalera (Pio Bermejillo kalea, 40) edo deitu 616437513 telefono-zenbakira. Zerbitzua larunbat eta igandetan erabil daiteke, eta prezioa 5 eurokoa da, pertsonako eta ordu erdiko. 8 urtetik beherako haurrek doan nabiga dezakete, baldin eta bi pertsona heldurekin badoaz.

Masaje linfatikoko saioak

Irailaren 18an masaje linfatikoko saioak egingo dira Emakumearen Etxean. Parte hartu nahi izatekotan, ezinbestekoa da hitzordua eskatzea 946103099 telefono-zenbakira deituta. Udaleko Berdintasuna, Osasuna eta Immigrazioa Zinegotzigoak diruz laguntzen du saioen zati bat, eta, beraz, prezioa 32 eurokoa da.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzeko epea

2013. urteko bigarren seihileko Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eskatzeko epea **urriaren 1ean hasi eta hil bereko 31n** amaituko da, bi egunak barne. Interesa duten pertsonak aurretiko hitzordua eskatu beharko dute, dela 946102491 telefono-zenbakira deituta, dela udaletxeko bulego nagusietara joanda (hitz egin Angélicarekin).



Kubo kalea

Garajeak, lokalak eta trastelekuak enkantean

Irailaren 7tik 23ra, biak barne, udaleko lokal, garaje eta trasteleku hauek enkantean hartzeko eskaintzak egin ahal izango dira:

-Merkataritza lokala Presa Encimera kalean (Kolitza kooperatiba): 141,75 m². Hasierako prezioa: 92.850 euro.

-Merkataritza lokala Kubon: 367,4 m² erabilgarri, erabilera eskusiboko kanpoaldeko terraza (350 m² baino gehiago). Hasierako prezioa: 465.000 euro.

-18 garaje-plaza Kubo kalean: Prezioak 10.474,20 euro eta 22.474,19 euro artekoak. Lursailletako batek trasteleku dauka eta hasierako prezioa 22.474,19 eurokoa da, 18,01 m² erabilgarriekin eta dagoeneko ez da minusbaliatuentzako eskusiboa.

-42 garaje-plaza Ateneoko aparkalekuan: prezioa 10.875 eurotik 17.475 eurora bitartekoak izango da.

UdalBerriak

GIZARTE EKINTZA

62.000 EURO BEHARRIZANAK D



Aurten bainuontzia dutza ontziarekin ordezteko laguntzen da

Aurtengoa bigarren urtea izango da Balmasedako Udalak Beharrianak dituzten Pertsonentzako Funtza zabalduko duela. Oraingo honetan, asko jota 62.000 euro banatuko dira, honako kontzeptu hauetan: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzea, eskolarako jantziak eta kirol materiala erostea, bainuontzia dutza ontziarekin ordezteko, euskara ikastea, fatxadak, teilatuak eta atariak berritzea, igogailuak instalatzea, eta langabezian dauden pertsonen presakuntza jarduerak egiteko joan-etorriak ordaintzen laguntzea. Eskaerak **2013ko irailaren 16tik urriaren 21era** bitartean aurkeztu behar dira, udaletxeko Erregistro Nagusian. Laguntzen onuradunak Balmasedan erroldatuta dauden pertsonak eta familia unitateak izango dira, baldin eta baliabide ekonomiko urriak badituzte. Orobat, nahitaezkoa izango da gutxienez hiru urteko antzinatasuna izatea biztanleen udal erroldan, inolako etenik gabe. Horrez gain, egiazko bizilekua laguntza eskaeran adierazitako helbidea izan beharko dute, eta halaber, bat etorri beharko du laguntza horietako batzuen xede diren ordainagiritan agertzen den helbidearekin. Bestalde, familia unitateko kide bakoitzak ezingo du 12.000 euroko zenbateko gordina gainditu (zuzenke-

ta faktoreekin, aurreko eta ondorengoengatik), ez eta balio nabarmeneko ondasunak izan ere, ohiko etxebizitza, garajea eta trastelekuak izan ezik. Laguntza horiek ez dira emango honako kasu hauetan: udal zerga eta tansen ordainketa eguneratua ez izatea; udal eskumeneko auziei dagokienez iruzurrez jokatzeko, baldin eta horrek eragiten badu diru-laguntza edo laguntza publikoen pertsona onuradun izateari uztea; kanpotik modu agerian ikusi ahal izatea baliabide ekonomiko nahikoak dituela; eskaera osatugabeak edo faltsuak aurkeztea; edo datuak ezkatzea. Bestalde, nabarmentzeko modukoa da diru-laguntzak aurrekontu esleipenera mugatuko direla.

OIZ ordaintzea

Pertsona eskatzailearen ohiko etxebizitza den higiezinaren ordainagiria izango da diruz laguntzeko moduko gastu bakarra, pertsona hori higiezinaren titularra dela edo errentaria dela (azken kasu horretan egiaztatuko du errentatzaileak ordainagiriaren zenbatekoa kobratzen diola). Gehienez ere 2013ko OHZren ordainagiriaren % 90 lagunduko da diruz, familia unitate bakoitzeko gehienez ere 200 euro.

Euskara ikastea

Laguntza horien onuradunek, ares-tian aipatutako eskakizunak betetzeaz gain, egiaztatu behar dute 2011-2012 ikasturtean euskara ikastaroak egin dituztela HABEK homologatutako euskaltegiren batean. Hartara, ezingo dituzte laguntzok jaso euskara ikastaroak lan programa zehatzen bitartez egin dituzten pertsonak, edota ikastarook euren enpresek lagundu badituzte diruz.

Diru-laguntza nagusia ordaindutako matrikula gastuen % 40 izango da, eta zenbait kasutan % 70 ere eskuratuta ahal izango da.

Kirol materiala eta eskolarako jantziak

Eskolatzeak dakartzen familia-zamak arintzen laguntzeaz gain, gure hiribilduko txikizkako merkataritzari laguntzea ere sustatu nahi da. Aurten, areagotu egin dira gehieneko zenbatekoak; izan ere, laguntza horiek 50 eurora artekoak izango dira Haur Hezkuntzan matrikulatutako haur bakoitzeko (20 euro fakturen zenbateko osoa Balmasedako saltoki txikizkarietakoak ez badira) eta 120 eurora artekoak Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatutako haur

FONTANERIA ANTON

- Instalazioak
- Konponketak
- Aparatu sanitarioak
- Sukalde eta komunetako konponketak...

Telefonoa: 687 535 874 BALMASEDA

ITUZTEN PERTSONENTZAKO

bakoitzeko (50 euro fakturen zenbaiteko osoa gure hiribilduko saltoki txikizkarietakoak ez badira).

Teilatuak, fatxadak eta atariak berritzea

Hartara, diruz lagundu egingo dira teilatua, fatxadak eta atariak osorik berritzeko jarduketak, horien bidez irisgarritasuna hobetzen baldin bada. Fatxadak margotzeko gastuei aurre egin nahi izatekotan, diru-laguntza eskuratu da Alde Historikorako koloreen zerrendako baten bat hautatzen bada. Aipatu zerrenda hori udaletxean eska daiteke.

Bainuontzia dutxa ontziarekin ordeztea

Gehenez ere, 6.000 euroekin lagunduko da diruz bainuontzia dutxa ontziarekin ordeztea, baldin eta ohiko etxebizitzan egiten bada.

Mugikortasun murriztua dutenek, edo % 33eko minusbalioetasun gradua edo handiagoa aitortua ez duten pertsonen eta erretiroa hartua dutenek lehenetasuna izango dute diru-laguntza hori eskuratzeko orduan. Kontzeptu berberetatik beste diru-laguntzarik jasoko ez duela zin egin behar du jasotzaileak deklarazio batean. Lortu ahal daiteken laguntza %20koa izango da gehenez, 300 euroko mugarekin.

Igogailuak instalatzea

Beste partida bat dago irisgarritasun obretarako eta xedea izango da igogailuak instalatzea 15 urte baino gehiago dituzten eraikinetako elementu erkideetan, halakorik ez badute edo noizbait izan badute. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren laguntza jaso duten obrak besterik ez da diruz lagunduko.

Langabezian dauden pertsonen joan-etorriak

Laguntzak emango dira 16 urtetik gorako pertsona langabetuek egiten dituzten joan-etorriei aurre egiteko. Zehazki, helburua da enplegurako preskakuntza profesionaleko ekintzak egitea, Lanbideko onetsi eta homologatutakoak, eta partida 2.000 eurokoa da. Pertsona bakoitzak ezingo du diru-laguntza bat baino gehiago eskuratu.

Interesa duten pertsonen laguntza horien oinarri osoak eskaditzakete udaletxeko bulego nagusietan, edota udal web orritik jaitsi (www.balmaseda.net).



León Trucíos egoitza

Egonaldiak León Trucíos egoitzan

León Trucíos egoitza egonaldi iraunkorreko egoitza osatzen duten zerbitzu batzuk eskaintzen ari da. Hala, aldi baterako egonaldiez gain (ekimenak oso harrera ona izan du), egoitzan egonaldiak egin daitezke gaua igaro gabe, hau da, bertan lo egin gabe. Horren bitartez, eskaintzen diren zerbitzu guztiak erabiltzeko aukera dago: mediku zerbitzua, zerbitzu psikologikoa, sukaldaritza zerbitzua, fisioterapia eta errehabilitazio zerbitzua, terapia okupazionala, eta eguneroko oinarriko jardueretarako laguntza. Informazio gehiago 946800601 telefono-ra deituta edo direccion@fleon-trucios.com helbidera idatzita. Egoitzara bertara joan zaitezke (Kubo kalea, 9).

Haur errusiarrei harrera



Uda honetan gure artean egon diren haur errusiarrei egindako harrera ofiziala

Uztailaren 17an, Gizarte Ekintza eta Teknologia Berriak Saileko zinegotzi losune Sainz Alejandrek eta Berdintasuna, Osasuna eta Immigrazioa Saileko zinegotzi Garbiñe Santamarinak ongietorria eman zieten uda honetan, gure hiribilduko zenbait familiak hartuta, Balmasedara etorri diren 4 haur errusiarrei: Dani, Maxim, Dani eta Polina.

Aurten, 3 mutil eta neska bat etorri dira, eta begirale errusiarrekin bidaiatu dute, zenbait aste igaro ditzaten eu-

ren jaioterriko kutsadura nuklearretik eta muturreko klimatik urrun. Harrean, harrera-gurasoez gain, gure artean hainbat uda eman dituen gazte errusiar bat egon zen, Nasta. Bere garaian bertako familiek hartuta etorri zen, eta egun duen adinagatik, turista gisa etorri da.

Bikarte elkarteak bitartekaritza lanak egiten ditu gobernu errusiarren eta harrera-gurasoen artean, hamarka adingabek udako bi hilabete eman ditzaten Euskadin. Lan eskuzabal ho-

rri esker, haurrek klima hobeez eta aire zabaleko jarduerak osasungarriez goza dezakete, eta horren bidez, euren osasunak ere hobera egiten du, negu errusiar gogorrari aurre egiteko. Hala ere, haurrak hartu ohi dituzten familiek diotenez, adingabe horiek eramaten dutena baino askoz gehiago ematen dute. Bikarte elkartearen lanari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, deitu 605709024 telefono-zenbakira.

Gripearen aurkako kanpaina

Osakidetzak irailean emango dio hasiera urtero antolatzen duen gripearen aurkako txertaketa Kanpainari. Bereziki, 65 urte edo gehiago dituzten helduei, diabetesa, asma edo giltzurruneko hutsegitea bezalako gaixotasun kronikoak dituzten umeei, osasun arloko langileei eta haurdunei zuzenduta dago. Txertoa jartzeko, aurretiko hitzordua eskatu behar da anbulatorioan (telefono-zenbakia: 946102325).

Establezimendu berriak

Musutxu taberna-kafetegia

Aspaldiko Eguzki tabernak (Hedegile kalea, 34) beste jabe batzuk ditu, eta Musutxu izena jarri diote. Taberna-kafetegi honetan hau aurkitu dezakezu: pintxoak eta anoak, musika zuzenean, liburuak maileguan hartzeko edo elkartrukatzeko aukera, erakusketak, futbola eta abar. Giro atsegina, egunez zein gauez. Asteazkenetik aurrera, eta larunbatetik igandera 10etatik aurrera; izan ere, etenik gabeko ordutegia dute. Hemen duzu telefono-zenbakia: 946801094.

Cabaña Berria

La Cabaña tabernak ere beste jabe batzuk ditu orain, eta Cabaña Berria (Markes plaza, 3) du izena. Aurrekoak bezala, honek ere giro atsegina du bertan eskaintzen diren pintxoak eta asteburuetan prestatzen dituzten afariez gozatzeko. Enkarguzko janaria prestatzen dute (946800127 telefono deituz). 7etatik aurrera dago irekita, larunbatetik igandera izan ezik, egun horietan 8:30ean irekitzen dute eta.

Balmaidendaren desfilea

Balmaidenda beste desfile bat antolatuzko prestakizunak amaitzen ari da, hurrengo denboraldiko moda guztiarekin. **Urriaren 4an** izango da San Juan Plazan, eta kartel zein sare sozialen bidez emango dira zehaztasun gehiago.

UdalBerriak

MERKATARITZA

"ENKARDENDAK" I



"Enkardendak" eskualdeko azokaren bigarren edizioa datorren **irailaren 21ean**, larunbata, egingo da, Balmasedan. Gure hiribilduko, Zallako eta Gueñesko 40 denda baino gehiago elkartuko dira San Severino plazan, euren produktuak preziorik onenean erakusteko. Ogia eta pastelak, moda, zapatak eta osagarriak, altzariak eta dekorazioa, kirol produktuak, mertze-

ria- eta lantzeria-gaiak, haurrentzako moda, optikako produktuak eta abar erosi ahalko dira prezio ezin hobean. Baina "Enkardendak" prezio onean erosteko azoka baino gehiago da, esku hartzen duten dendek eta babesleek jai-eguna izan dadin nahi dute, eta horretarako hainbat jarduera eta sorpresa antolatu dira. Oraingoan esan dezakegu txikienezako ikuskizunak

egongo direla eguerditik aurrera. Puxtara doan dastatzeko aukera ere egongo da, eta sariak eta sorpresazko gutun-azalak banatuko dira bertaratuak artean. Era berean, ez da gure jirafa faltako, Balmasedako Merkatarien Elkarteko maskota. Urteko garai honetan nabarmenki murrizten diren salmentak sustatzeaz gain, azoka horren jatorrizko hel-

TRAMEINSA



TRANSFORMADORE
MEKANIKO
INDUSTRIALAK, S.L.
Metalgintza
Burdina
Altzairu herdoilgaitza
Letoia
Aluminioa

Telefonoa: 94 680 16 16 - Faxa: 94 610 20 58
Galtzada, 40 - 48800 BALMASEDA

Carnicerías



SIERRA

Especialitatea:
arkumeak eta
ekoizpen
propioko
haragiak

Telf.: 94 680 15 34
(Balmaseda)

Laburki

I. ESKUALDE AZOKA



Giro ederra Enkardendak azokaren lehenengo edizioan

burua zen eskualdeko lankidetzara modu berriak bilatzea merkataritzako dinamizazio ekintzen bidez. Enkarterriko merkataritza berritzailea eta lehiakorra da, eta eguneratuta dago kontsumo-joera berriei dagokienez. Eskualdeko markaren eta talde-lanaren izaera eta irudia dira etengabe aldatzen ari den sektore honetan bizi-rauteko helburuetako bat. "Enkar-

dendak" horren guztiaren adierazle da. Baina, gainera, parte hartzen duten dendek euren bezeroen fideltasuna saritu nahi dute, eta aisialdirako aukera eskaini: familia guztientzako jai-eguna. Ekitaldia egun guztian zehar egingo da, 10:00etatik 20:00etara, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena

eta Lehiakortasuna Sailak babesten du. Halaber, Enkarterrek, Balmaseda, Zalla eta Gueñesko udalek zein merkataritza elkarteek eta gure hiribilduan dagoen Eskualdeko Dinamizaziorako Bulegoak ere laguntzen dute. Etor zaitetz erosketa egun batez gozatzera, prezio eta konpainia onenatan!

Jarduerarako lizentzia eskuratzea

Jarduera komertzial, profesional edo industrial bat egin nahi dutenek (irabazi asmorik gabeko erakundeak barne), azken legeriarri jarraikiz, erantzukizun aitorten baten bidez jakinarazi beharko dute euren establezimendua abian jarriko dutela. Aitorten horren bidez, negozioa behar bezala instalatuta eta indarrean dagoen araudiarekin bat datorrela adieraziko dute. Aitorten horren inprimakiak Udalaren web orrian lortu ahal izango dira (www.balmaseda.net), edo Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoan (Enkarter erai-kinaren azken solairuan), baita aitorten horrekin batera aurkeztu beharreko agirien zerrenda ere. Agiri horietan, gutxienez, honako hauek egongo dira: Eskatzailearen NANaren edo IFKren kopia, teknikoki eskumena duen pertsona batek idatzitako memoria eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) alta emanda dagoela edo aldaketaren bat egin dela egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia. Aurretiaz adierazitakoa aurkezteak establezimendua abian jartzeko baimena ematen du. Hala ere, ikuskatu egingo da, egiaztatzeko jarduera aitortutakoarekin bat datorrela. Horrez gain, neurri zuzentzaileak ezartzea ere eskatu ahal izango da, eta azken finean, arauraren bat haustekotan, jarduera eteteko agindua ere eman ahal izango da. Argibide gehiago 946801002 telefonoan.

ARD
Lursailtako administraria
Itziar Rey Davalillo
afin2011@hotmail.es TEL: 626 864 529



**Pintura, burdineria,
paper pintatuta, etxeko
tresneria eta opariak**

Aldapa, 16/18
Tel. eta Faxa: 946 801 752
Balmaseda

Decoraciones Javi

**MATEMATIKAK
FISIKA, KIMIKA
MARRAZKETA TEK.**
LH, DBH, Batzillergoak,
Unibertsitatea
Tel. 617689452

**ARGAZKIAK
XARMAREKIN**
www.serafinpalazon.es 649026971

VADILLO KARROZERIAK
TXAPA ETA PINTURA
Erreka, 10
Balmaseda (Bizkaia)
carroceriasvadillo@hotmail.es
Tel./Faxa: 946800408

UdalBerriak

DOAKO ALEA - ALE KOPURUA: 4.200 - GURE UDALAREN INFORMAZIOA - 11. URTEA - IRAILA 13/1. - 165. ZK.

e-mail: nagore@balmaseda.net - www.balmaseda.net

ENKARDENDAK BALMASEDAN



Irailaren 16an zabalduko da epea Beharrianak dituzten Pertsonentzako Funtseko laguntzako eskatzeko.
4. eta 5. or.



Irailaren 27an amaituko da epea Berdintasuneko 2013-2014 ikasturteko ikastaroetan izena eman ahal izateko.
7. or.



Datorren urriaren 5ean egungo zinearen saioak izango ditugu Klaret Antzokian berriro ere, sistema digitalean.
8. or.


balmaseda
AyuntamientoUdala